



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Barakaldoko Udala

Barakaldoko Udalean Turismo-enpresa eta Jardueretako Teknikarien premiazko lan-poltsa osatzeko deialdiaren oinarrien onespenerari buruzko iragarkia.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko urtarrilaren 19an egindako 2/2024 ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

LEHENENGOA: Barakaldoko Udalean turismo-enpresa eta -jardueretako teknikarien premiazko lan-poltsa osatzeko hautaketa-prozesua arautzeko deialdiaren oinarriak onestea. Oinarri horiek jarraian transkribatzen direnak dira:

Lehenengoa.—*Deialdiaren xedea*

Oinarri hauen xedea da Barakaldoko Udalean Turismo-Enpresa eta -Jardueretako Teknikari lanbide-kategoriarako premiazko lan-poltsa bat sortzeko deialdiaren hautaketa-prozedura arautzea, 2020ko ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran onartutako Barakaldoko Udaleko lan-poltsak eratzeke eta kudeatzeko irizpideak arautzen dituen Erregelamenduaren 4.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (Bizkaiko Aldizkari Ofizia-
la, 151. zenbakia, 2020ko abuztuaren 10ekoa); hainbat alderditan aldatua osoko bilkurak hartutako 2022ko otsailaren 24ko erabakiaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2022ko ekainaren 15ekoa).

Ateratzen den lan-poltsa aipatutako kategoriako lanpostuak aldi baterako betetzeko erabiliko da. Kategoria hori honakoari dagokio: Administrazio Bereziko Eskala, Azpieska-
la Teknikoa, Erdi-mailako teknikari klasea, A sailkapen-taldea (A2 azpitaldea).

1.2. Ondoriozko lan-poltsa osatzen duten pertsonak bitarteko funtzionario izendatu ahal izango dira indarrean dagoen araudiak baimentzen dituen kasuetan (plazaren titu-
larra ez egotea).

Ondoriozko Premiazko Poltsaren helburu nagusia izango da Turismo-Enpresa Eta -Jardueretako Teknikari lanpostua betetzea, aldi baterako lanerako ezintasunagatik eta lanaldi-murrizketengatik ordezkapenak egitea, eta premiazkoak diren beste premia ba-
tzuk betetzea.

1.3. Sortzen den lan-poltsa subsidiarioa izango da kategoria horretako lan-poltsa aruntarekiko, eta lan-poltsa horretan lan egiteko moduan inor ez dagoenean soilik era-
biliko da.

Premiazko lan-poltsa hori desagertu egingo da honako kasu hauetan:

- Barakaldoko Udaleko lanpostu hutsak jabetzan betetzeko deitzen den eta inda-
rrean dagoen lan-poltsa arrunta indartzeko den hautaketa-prozesua amaitzen de-
nean.
- Indarrean dagoen lan-poltsa arrunta handitzeko proba praktiko edota teoriko baz-
tertzaileak dituen hautaketa-prozesu berriren bat amaitzen denean.

1.4. Ordainsaria aldi baterako betetzen den lanpostuari dagokiona izango da. Lan-
postuaren eginkizunen artean (negoziatzeke dago horren balorazioa), eta oro har, hona-
ko hauek daude:

- Udalerria hedatzeko eta sustatzeko ekintzak, proiektuak eta ekitaldiak diseinatzea,
garatzea eta programatzea.
- Baterako proiektuei buruz aholkatzea eta diziplina anitzeko taldeetan parte har-
tzea.
- Hiria sustatzeko azoka, biltzar eta ekitaldietara joatea.
- Dirulaguntzak izapidetzea.
- Sustapen-materialaren erosketak kudeatzea.



- Bere eskumen-eremuari buruzko espedienteak, txosten teknikoak, azterlanak, jardueren memoriak, adierazleak eta estatistikak idaztea eta egitea.
- Datu estatistikoak biltzea eta adierazleen jarraipena egitea.
- Jendeari informazioa eta orientazioa ematea bere eskumeneko gaitetan.
- Bere nagusiei aholkularitza teknikoa ematea, bere eskumenen esparruan.
- Hierarkian gorago dagoenak agintzen dion antzeko beste edozein zeregin egitea.

Bigarrenena. — Parte hartzeko baldintzak

2.1. Hautaketa-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Europar Batasuneko herritarra edo haren ezkontidea izatea, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta ezkontidearen ondorengoak ere, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanik mendekoak badira.

Halaber, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dauden pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa denean.

- b. 16 urte beteta izatea eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean nahitaezko erretiroaren gehieneko adina ez gainditzea.
- c. Turismo-enpresa eta -jardueretako teknikariaren edo diplomatuaren unibertsitate-titulua izatea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen baliozkotzea edo kredentziala izan beharko du, hala badagokio.

- d. Dagokion izendapenaren ondoriozko eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- e. Diziiplina-espediente bidez inolako herri-administrazioaren edo autonomia erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioren zerbitzutik baztertuta ez egotea; eta ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikoak betetzeko desgaitasun absoluturik edo berezirik ez izatea, edo bereizia edo desgaitua izan deneko funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko desgaitasun absoluturik edo berezirik ez izatea.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikoa lortzea eragotzen duen diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

- f. Herri-administrazioetako langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; nolana ere, kargu publiko bat edo jarduera pribatu bateraezin bat betetzen dutenek aipatutako araudian aipatzen den aukera-eskubidea baliatu ahal izango dute.
- g. Barakaldoko Udalean indarrean dagoen lan-poltsa arruntan ez egotea, deialdi honen xede den kategorian.

2.2. Hautagaiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean oinarri hauek ezarritako baldintzak bete beharko dituzte; eta hautaketa-prozesu osoan zehar mantendu beharko dituzte (2.1.d atalean, gaitasun funtzionalari buruzkoan, adierazitakoa izan ezik). Gaitasun hori udal-zerbitzu medikoek egiaztatu beharko dute izendapena egin baino lehentxeago, dagokion azterketa medikoaren bidez.

Hirugarrena. — Eskabideak

3.1. Eskabideak, ahal dela, Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Egoitza Elektronikoko Enplegua atalaren bidez (<https://www.barakaldo.eus>).



Eskabideak, era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehaztutako moduan aurkeztu ahal izango dira.

Parte hartzeko eskabideak posta-bulegoetan aurkezten badira, gutun-azal irekian entregatuko dira, posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar diezazkieten, eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu direla ziurtatu aurretik. Kasu horretan bakarrik ulertuko da eskabideak posta bulegora eraman diren egun berean sartu direla udalaren erregistro orokorrean. Eskabideak zigilatuta egon behar du.

3.2. Hautagaiak eskabide-inprimakiko atal guztiak bete beharko dituzte; alegatzen diren merezimenduak zerrendatu beharko dituzte; eta adierazi beharko dute deialdiaren bigarren oinarrian eskatzen diren parte hartzeko baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela.

Eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopia soila aurkeztuko da.

3.3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, interesdunek eskubidea dute administrazio jarduleak dagoeneko dituen edo beste administrazio batek egin dituen agiriak berriro ez aurkezteko. Horregatik, Langile Zerbitzuak, bitarteko telematikoen bidez, hautagaiak hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko behar den informazioa kontsultatu edo eskatu ahal izango die administrazio publikoei, salbu eta interesduna horren aurka agertzen bada eta arrazoiak ematen baditu.

Interesdunak bere datuak kontsultatzearen aurka egin nahi badu, eskubide hori erregistro elektronikoen bidez eskatuta baliatu ahal izango du, eta aurka egiteko eskabidean adierazi beharko du zein izapideren aurka dagoen. Aurka egiteko eskubidea baliatzen badu, interesdunak behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du aurka egiteko eskubidea baliatu duen izapideetan.

Hala ere, parte-hartzaileek eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte, hala eskatzen zaienean.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea bost egun baliodunekoa izango da, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain, deialdiaren berri emango da Bizkaiko bi komunikabide inprimatutan, Udalaren webgunean iragarkia jarri beharko da eta Sindikatu-ataleki mezu elektronikoak bidali beharko zaizkie.

3.5. Eskabidean agertzen diren helbidea, telefonoak eta helbide elektronikoa baliokotzat joko dira. Horiek idatziz jasotzean egon daitezkeen akatsak eta horietan gertatzen den edozein aldaketa epaimahaiari jakinaraztea eskabidea egiten duenaren erantzukizun eksklusiboa dira.

Jakinarazpenak egin ahal izateko, eskabidean adierazitako helbidea hartuko da helbidetzat, deialdia egin duen agintaritzari geroago berariaz eta modu frogagarrian beste bat jakinarazten ez bazaio.

3.6. Eskabidea garaiz ez aurkezteak hautagaia hautaketa-prozesurako ez onartzea ekarriko du.

Eskabidean ikus daitezkeen egitatezko errakuntza material edo aritmetikoak edozein unetan ofizioz zuzendu ahal izango dira, interesdunak hala eskatuta.

3.7. Ezin izango dira baloratu adierazitako moduan alegatu ez diren edo egiaztatu ez diren merezimenduak.

3.8. Hautaketa-prozesuak arautzen dituen publizitate-printzipioa aplikatuz, hautagaiak parte hartzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar eskabide horretan jasotako datu pertsonalak tratatzeko baimena ematea; eta berekin dakar baimena ematea albizkari ofizialetan, iragarki-tauletan, Udalaren webgunean eta oinarri hauek aplikatzeko erabiltzen den beste edozein bitartekotan egiten diren nahitaezko argitalpenetan identifikatzen daitezkeen.



Eskabidea aurkezteak berekin dakar, halaber, baimena ematea beste herri-administrazio batzuei datu pertsonalak (izen-abizenak, harremanetarako modua eta prestakuntza-maila) lagatzeko; enplegu-eskaintzak legez aurreikusitako baldintzetan jasotzeko, betiere parte hartzeko eskabidearen dagokion atalean berariaz baimendu bada.

Turismo-Enpresa eta -Jardueretako Teknikarien premia- lan-poltsa sortzeko asmoz bildutako datu pertsonalak «Langileak hautatzeko prozesuak» izeneko tratamendu-jardueraren parte izatera igaroko dira. Barakaldoko Udalak (Herriko Plaza, 1, 48901 Barakaldo) izango du datu horiek tratatzeko ardura; eta, horren aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta horiei aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira.

Hautaketa-prozesuetan bildutako edo sortutako datu pertsonalen tratamendua datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera izango da.

Laugarrena. — Kalifikazio-epaimahaia

4.1. Udal-organo eskudunaren ebazpen bidez izendatuko dira Kalifikazio-epaimahaia osatzen duten titularrak eta ordezkioak.

Epaimahaia epaimahaiburu batek, idazkari batek eta bi epaimahaikidek osatuko dute, bai eta horien ordezkioak ere.

Kalifikazio-epaimahaiko kideak norberaren izenean arituko dira beti, eta ezin izango dute inoren ordezkari izan edo inoren kontura aritu.

4.2. Kalifikazio-epaimahaiko kideek ezin izango dute jardun edo edozein unetan errefusatu ahal izango dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.3. Epaimahaikideek, beren eginkizunak betetzean, intimitaterako eskubidea eta errespetua eta begirunea bermatuko dizkiete hautagaiei; eta horietako bakoitzari buruz jasotako informazioa behar bezala tratatzen dela zainduko dute.

4.4. Epaimahaiaren eraketa eta jarduna Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 18.era bitarteko artikuluen arabera arautuko dira, oinarri hauetan xedatu ez den guztian.

Epaimahaia idazkariak deitu ondoren bilduko da, epaimahaiburuak aginduta. Bilkurak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko balio izateko, beharrezkoa izango da mahaiburua eta idazkaria (edo, hala badagokio, haien ordezkioak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzea, aurrez aurre edo urrutitik.

Erabakiak bertaratuen botoen gehiengoz hartuko dira.

Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak ahotsarekin baina botorik gabe jardungo du.

Kalifikazio-epaimahaiko kide titularrak ez badaude edo gaixorik badaude (eta, oro har, justifikaturiko arrazoren bat dagoenean), ordezkioak hartuko dute haien lekua.

Epaimahaiak ahalmena du hautaketa-prozesua behar bezala egiteko eta garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian; bai eta haren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren arazoak ebazteko ere.

4.5. Epaimahaiak emango dituen ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio Barakaldoko Udaleko alkateari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hautaketa-prozeduratik eratorritako administrazio-egintzak Udalaren iragarki-ohol elektronikoan eta webgunean argitaratuko dira, eta jakinarazpena ordeztu eta horren ondorio berberak eragingo dituzte.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Kalifikazio-epaimahaiak Ku-deaketa eta Barne Antolamenduko Arloan izango du egoitza (gaur egun Barakaldoko Herriko Plaza, 1, helbidean dago).

**Bosgarrena. — Merezimenduak**

5.1. Hautagaiak lehiaketa-sistemaren bidez hautatuko dira. Behin betiko sailkatze-ko hurrenkera zehazteko, lortutako puntuazioen batuketa egingo da.

5.2. Merezimenduak oinarri honetan deskribatutako moduan egiaztatuko dira. Hala ere, zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez egiaztatzea onartuko da.

Merezimenduak baloratzeko erreferentzia-data deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen deneko eguna izango da.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko ezinbesteko baldintzak ezin izango dira merezimendu gisa baloratu.

5.3. Epaimahaiak merezimendu hauek baloratuko ditu, betiere eskabidearekin batera agiri bidez alegatu eta egiaztatu badira, hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

MEREZIMENDUAK**A) Lan-esperientzia**

Atal hau gehienez 60 punturekin baloratuko da, baremo honen arabera:

— Deialdiko lanbide-kategorian edozein harreman juridikoren pean administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, zerbitzu zibileko edo merkataritza-zerbitzuko errentamendu-kontratuak izan ezik, lan egindako hilabete bakoitzeko baloratuko dira, eta 0,50 puntu emango dira lan egindako hilabete oso bakoitzeko.

Merezimendu hau egiaztatzeko, administrazioaren dokumentazioa edo ziurtagiria aurkeztu beharko da; eta bertan, kategoria, lanaldiaren ehunekoa eta lan egindako aldiak jaso beharko dira.

Lanaldi partzialeko erregimeneko edo lanaldi-murrizketako dedikazio-aldiak dauden kasuetan, benetan emandako dedikazio-aldiaren proportzioan egingo da zenbaketa. Murrizketa hori bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko neurriak aplikatzearen ondorioz eman bada, horien onuradunari lanaldi osokoa balitz bezala zenbatuko zaio denbora.

B) Ingelesa

Gehieneko puntuazioa 15 puntukoa izango da.

— Ingelesa: B1 akreditazioa: 5 puntu

— Ingelesa: B2 akreditazioa: 10 puntu

— Ingelesa: C1 akreditazioa: 15 puntu

Puntuazioaren ondorioetarako eskatutako mailan hizkuntza badakiela egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

C) Prestakuntza

Lanpostuarekin lotutako prestakuntza baloratuko da, gehienez 5 punturekin, baremo honen arabera:

— 10 eta 19 ordu bitarteko ikastaroak: 0,25 puntu.

— 20 eta 30 ordu bitarteko ikastaroak: 0,50 puntu.

— 31 eta 70 ordu bitarteko ikastaroak: 0,75 puntu.

— 70 ordutik gorako ikastaroak: Puntu 1,00.

Ikastetxe ofizialek edo erakunde publikoek onartutako, emandako edo antolatutako prestakuntza-ikastaroetara joan izana baloratuko da. Era berean, kontuan hartuko dira edozein administrazio sinatutako etengabeko prestakuntzako akordioen esparruan jasotakoak.

Deitutako lanpostuan garatu beharreko eginkizunekin zerikusia duten ikastaroak soilik baloratuko dira.

Bestalde, ez dira baloratuko titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketa plan baten zati edo barnekoak diren ikastaroak.



Prestakuntza baloratzeko, prestakuntza-ikastaroen egiaztagirietan jaso beharko da ikastaroaren izena, ziurtagiria ematen duen erakundea eta prestakuntza-orduen kopurua.

D) *Euskara*

Atal hau gehienez 20 punturekin baloratuko da, baremo honen arabera:

- 1. HE (B1): 5 puntu.
- 2. HE (B2): 10 puntu.
- 3. HE (C1): 15 puntu.
- 4. HE (C2): 20 puntu.

Hizkuntza-eskakizunak baliozkotzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan eta euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan xedatutakoa beteko da.

Euskararen ezagutza dagokion ziurtagiriaren fotokopia bidez egiaztatuko da, eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen lortu bada bakarrik hartuko da kontuan.

Seigarrena. — Puntuazioak argitaratzea eta premiazko lan-poltsa egitea

6.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, epaimahaiak hautagaiek egiaztatutako merezimenduak baloratuko ditu.

6.2. Merezimenduak baloratu ondoren, alkate-udalburuak ebazpena emango du, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartutzat jotzeko; eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoa zein den adieraziko du. Zerrenda horretan sartuko da onartutako hautagai bakoitzak lortutako puntuazioa.

Ebazpena Udalaren webgunean eta ediktu-taulan jarriko da.

Interesdunek bost egun balioduneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, zerrenda horretako datuen inguruan zuzenketak egiteko edo alegazioak aurkezteko. Erreklamazioek ezin izango dute eskabidean alegatutakoez bestelako merezimendurik eskatu edo egiaztatu. Kalifikazio-epaimahaiak ez du kontuan hartuko merezimenduak handitzea dakarren zuzenketa-epean aurkeztutako agiririk.

Epe hori igarotakoan, epaimahaiak interesdunek aurkeztutako alegazioen berri emango du; eta organo eskudunari ebazpen-proposamena helaraziko zaio. Horren bidez, deialdi honen xede den premiazko lan-poltsa behin betiko onartuko da; eta hautagai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko da, oinarri hauetako bosgarren oinarrian ezarritako baremoaren arabera.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada edo ofizioz akatsik hautematen ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat hartuko da automatikoki.

Interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute behin betiko ebazpena eman zuen organo beraren aurrean. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Bestela, zuzenean aurkara dezakete, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien dagokion Epaitegian.

6.3. Lehiaketa osoaren puntuazioan berdinketa gertatuz gero, bosgarren oinarrian adierazitako merezimendu bakoitzean lortutako puntuazio altuenaren arabera ebatziko da, bertan adierazitako hurrenkeraren arabera.

Berdinketa hausteko beste irizpiderik behar izatekotan, epaimahaiak zehaztuko du merezimendu-printzipioaren arabera.

6.4. Prozesu honen ondoriozko lan-poltsa Barakaldoko Udalaren iragarki-oholean eta webgunean Enplegua atalean argitaratuko da.

**Zazpigarrena. — Azken arauak**

7.1. Oinarri orokor hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko dira.

7.2. Interesdunek deialdia, oinarriak eta horietatik eta kalifikazio-epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio-egintzak aurkaratu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

7.3. Oinarri hauetan aurreikusi ez den orotan, Toki Administrazioari, Funtzio Publikoari, euskararen erabilera normalizatzeari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko da. Bereziki, Barakaldoko Udaleko lan-poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideen Erregelamendua (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 151. zenbakia, 2020ko abuztuaren 10ekoa) aplikatuko da, hainbat alderditan aldatua osoko bilkurak hartutako 2022ko otsailaren 24ko erabakiaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2022ko ekainaren 15ekoa).

BIGARRENA: Erabaki hau Bizkaiko bi komunikabide inprimatutan argitaratzea eta iragarkia Udalaren webgunean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Jakinaraz bekio akordio hau udal-langileen ordezkaritzari, eta itzul bedi Langileen Zerbitzura.

Barakaldon, 2024ko otsailaren 8an. — Alkatea, Amaia del Campo Berasategi